



A eredua

IRAKASKUNTZAKO HIZKUNTZA-ESKAKIZUNAK**HLEA****PROBA IDATZIA**

Idatzi zure kodea:

--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

AZTERKETA HONETAZ

- Proba honek lau ariketa ditu: 1) Ahozkoaren ulermena 2) Irakurmena 3) Idazlan luzea 4) Idazlan laburra.
- Denbora: **3 ordu**.

A eredua

IRAKURMENA

Harreman berdeak

Jaio bezain laster, usainka hasi da *Cuscuta txikia*, ea airean harrapakinen baten aztarnarik detektatzen duen. Azkar ibili behar du; jaiolekutik zentimetro gutxi batzuetara harrapakinik topatzen ez badu, bereak egin du. Izan ere, gurasoek ez zioten erreserba handirik utzi, eta ezin du fotosintesirik egin. Landare bitxia da *Cuscuta*. Pennsylvaniako Unibertsitateko ikertzaile batzuek argitaratutako bideo batean, *Cuscuta* jaioberri batek tomate-landare bati nola erasotzen dion ikus daiteke. Landarea baino gehiago, animalia dirudi: zizare bat, edo (...11...) zerbait. Eta are gehiago, ikertzaile horiek egindako ikerketaren (...12...) erreparatzen badiegu: erasotzaileak 'usaindu' egiten du biktima, eta haren bila joaten da zuzenean. Muturreko adibidea da agian *Cuscutarena*. Landarea izanik, (...13...) egiten duela esatea gehiegi esatea da, seguru aski, baina landareen arteko (...14...) nolakoak izatera irits daitezkeen erakusten du. Askotan, izaki pasibo eta aspergarri moduan ikusten baditugu ere, badirudi landareen mundu (...15...) guk uste baino gauza gehiago gertatzen direla.

Beste landareen (...16...) bizi da *Cuscuta* bizkarroia. Zurtoina —horia, laranja edo gorria izan ohi da— biktimaren inguruan kiribiltzen du, eta (...17...) moduko batzuk sartzen dizkio, izerdia (...18...). Eskualde epeletatik tropikaletara, ia mundu osoan zabalduta dago, eta nekazari askoren (...19...) da. Izan ere, tomateei, azenarioei, tipulei, zitrikoei, alpapari eta abarri (...20...) die. Herrialde askotan, legez ziurtatu behar da (...21...) saltzen diren haziek ez dutela *Cuscuta*-hazirik.

Pennsylvaniako ikertzaileen esanean, bizkarroiak ostalaria nola aurkitzen duen jakitea baliagarria izan daiteke hari aurre egiteko. Tomate-landareekin hainbat (...22...) egin ondoren, ikusi dute tomateak askatzen dituen substantzia (...23...) batzuk detektatzen dituela. Substantzia horiekin bustitako goma-zati bati modu berean erasotzen dio.

Ostalariak (...24...) aurkitzen zituela pentsatzen zen, baina (...25...) horrek argi utzi zuen bilaketa aktiboa egiten duela. Hasieran, biraka hasten da, eta, biktimaren presentzia adierazten duen substantzia (...26...) duenean, harantz zuzentzen da. Ikertzaileak harrituta gelditu dira erasoaren zehaztasunarekin eta azkartasunarekin.

Eta hori ez da dena, erabakiak hartzeko gai dela ere esan dute. Izan ere, gariarekin ere egin dituzte probak, eta ikusi dute garia eta tomatea (...27...) jartzean, tomatearen bila joaten dela. Beste aukerarik ez dagoenean gariari erasotzen badio ere, gariak (...28...) duen konposatu batek *Cuscuta* uxatu egiten du.

Hemengo (...29...) oso ongi ezagutzen duten beste belar txar bat gogorarazten du *Cuscutak*: ezkerrea. Ez dakigu ezkerreak ere bere biktimak “usaintzeko” gaitasuna izango duen, baina, topatzen dituenean, haien gainera igotzen da, *Cuscuta* bezalaxe, kiribilduz. Ez die eztenik sartzen —fotosintesia egiten du ezkerreak—, baina izugarri azkar hazten da, eta, zenbaitetan, erabat estaltzen ditu biktimak.

Horrelakoak izan ohi dira landareen arteko harremanik arruntenak: argia, ura eta elikagaiak lortzeko lehiak. Lehia horiek fisikoak izaten dira askotan: (...30...) hazten denak, edo altuenak, edo sustrai gehien edo eraginkorrenak dituenak, edo kondizio jakin batzuk besteek baino hobeto jasateko gaitasuna duenak errazago eskuratuko ditu behar dituen (...31...).

Lehia hori gogorra izaten da maiz, eta (...32...) batzuek jokoan kanpo uzten dituzte besteak. Hori izan daiteke ezkerrearen kasua, ostalaria erabat estali eta argirik gabe uzten duenean; kondizio horietan, ostalariak ez du (...33...) aukerarik.

Argi dago, beraz, landareak ere, animalien (...34...), lehia batean bizi direla; eta hainbat arma dituztela horretarako. Baina armak izatea ez da dena; inguruan dagoenari edo dabilenari buruzko informazioa lortzea ere baliotsua da oso. Animaliak abilak izan ohi dira horretan; zentzumenak dituzte horretarako. Landareak ere, beste modu batera bada ere, gai dira informazio baliotsu hori biltzeko. Ikusi dugu *Cuscutak* “usaindu” egiten dituela biktimak. Bada, ez da halako (...35...) dituen bakarra.

Egoitz Etxebeste Aduriz, Elhuyar Zientzia.eus 2008-09-01 (moldatua)

A eredua

Idatzi zure aukerak erantzun-orrian. Han markatzen dituzun aukerak bakarrik hartuko dira kontuan ariketa zuzentzeko.

11	12	13	14	15
a. horrela b. antzeko c. hor d. hara	a. akatsei b. hutsei c. emaitzei d. emariei	a. usaindu b. entzun c. dastatu d. ikusi	a. ikuspegiak b. distantziak c. harremanak d. errespetuak	a. bizkorrean b. sekretuan c. gardenean d. argian
16	17	18	19	20
a. sorbaldatik b. ondorengoz c. kausaz d. izerditik	a. mutur b. iltze c. ezten d. txerto	a. izateko b. antzemateko c. elikatzeke d. xurgatzeko	a. tripako mina b. barregura c. buruhaustea d. haserrea	a. mesede egiten b. erasotzen c. laguntzen d. kaltetzen
21	22	23	24	25
a. sukaldaritzarako b. arrantzarako c. abeltzantzarako d. laborantzarako	a. proba b. sartu-irten c. saltsa d. ariketa	a. arraro b. lurrunkor c. pozoitsu d. beltz	a. izuz b. pozez c. zoriz d. badaezpada	a. uste b. ikerketa c. zaintzaile d. ideia
26	27	28	29	30
a. detektatzen b. edaten c. ikusten d. baztertzen	a. elkar b. gainean c. nahaste- borrastean d. aukeran	a. erakusten b. erakartzen c. igortzen d. arnasten	a. nekazariak b. abeltzainak c. ekologistak d. belarjaleak	a. azkarren b. geldien c. lausoen d. astiroen
31	32	33	34	35
a. edatekoak b. baliabideak c. ondorioak d. bitaminak	a. jolaskide b. lehiakide c. lagun d. burukide	a. hazteko b. hezteko c. hiltzeko d. mugitzeko	a. bezala b. beste c. gisara d. antza	a. egitekoak b. abilitadeak c. jakituriak d. erraztasunak

A eredua

AHOZKOAREN ULERMENA

Orain, grabazio bat entzungo duzu: Alazne Agirrezabalaga, Osasuna eta Kirola jardunaldietako dietista antolatzaileari egindako elkarrizketa. Bi atal ditu eta atal bakoitza bi aldiz entzungo duzu. Lehenik, galderak irakurtzeko denbora izango duzu; gero, markatu zure aukerak Erantzun-orrian. Erantzun-orrian markatzen dituzun aukerak bakarrik hartuko dira kontuan ariketa zuzentzeko.

1. atala

1.- Zer asmorekin antolatu ziren jardunaldiak?

- a) Jendea kontzientziatzeko.
- b) Galderak zehazteko.
- c) Elkar ezagutzeko.
- d) Zalantzak argitzeko.

2.- Baraurik kirola egitea komenigarria al da?

- a) Elitekoentzat, ez.
- b) Osasunarentzat, ez.
- c) Gaztetxoentzat, ez.
- d) Kasu batzuetan, ez.

3.- Garrantzirik ba al du kirola egin ondoren jateak?

- a) Ez, ez du batere.
- b) Bazkaria bada, bai.
- c) Errekuperaziorako, bai.
- d) Ez, norberak erabaki behar du.

4.- Zer jan beharko litzateke korrika egin ondoren?

- a) Proteinak.
- b) Energetikoak.
- c) Zuku lodiak.
- d) Karbohidratoak.

5.- Kirol guztietarako balio al dute gomendioek?

- a) Guztietarako oinarri bertsua da.
- b) Entrenamenduek esango digute.
- c) Prestaketa bakoitza diferentea da.
- d) Txapelketetarako aldatzen da.

2. atala

6.- Zerk eragin zion heriotza Frankfurteko kirolariari?

- a) Isotonikoa hartzeak.
- b) Hidratazio gehiegiak.
- c) Deshidratazioak.
- d) Ironmana egiteak.

7.- Zenbat denborako kirol-jardunak behar du isotonikoa?

- a) Ordu erdikoak.
- b) Ordubete eskasekoak.
- c) Ordubete justukoak.
- d) Ordubete baino luzeagoak.

8.- Kirola egin aurretik zerbait jan behar al da?

- a) Bai, zerbait pisutsua.
- b) Goizean egiten badugu, ez.
- c) Bai. Energia duena.
- d) Likidoak nahikoak dira.

9.- Zergatik sentitzen gara gose kirola egin ondoren?

- a) Jan gabe ibiltzen garelako.
- b) Odoleko azukrea jaitsi zaigulako.
- c) Energiarik gabe gaudelako.
- d) Arinegi jan dugulako.

10.- Zer aholkatzen du Alaznek?

- a) Dieta proteikoa
- b) Internetek dioena
- c) Fruta eta berdura
- d) Arroza eta oilaskoa



HLEA PROBA IDATZIA

ERANTZUN-ORRIA

Idatzi zure kodea:

--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

AHOZKOAREN ULERMENA

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

IRAKURMENA

11	12	13	14	15	16	17	18	19	20

21	22	23	24	25	26	27	28	29	30

31	32	33	34	35

Idatzi zure kodea:

IDAZLAN LUZEA

Aukeratu gai hauetako bat. Gutxienez 200 hitz dituen idazlana egin behar duzu.

Gurpil-aulkia. Ikastetxean, gurpil-aulkian mugitzen den ikasle bat duzue. Zuri dagokizu hari laguntzea, baina zailtasun handiak dituzu sarrera-irteeretan, korridoreetan, atsedendietan... Idatzi artikulua bat guraso elkartearen aldizkarian eskola-komunitateko kideak jabetzeko. **Hizpide hauek garatu behar dituzu:**

- Deskribatu ikaslearen berezko ezintasunak.
- Azaldu nolako zailtasunak izaten dituzuen (fisikoak, sozialak...).
- Adierazi zer portaera eskatzen diezun ikasleei, irakasleei...

Umeen ardura. Aita edo ama zara. Gaur egun, familia-egiturak aldatzen ari dira. Urtetik urtera, eskola-orduak amaitzean, gero eta aitona-amona gehiago ikusten dituzu biloben zain. Horrek kezka sorrarazi dizu, eta herriko hilabetekarian zure iritzia azaldu nahi duzu. **Hizpide hauek garatu behar dituzu:**

- Deskribatu egoera eta iritzia eman.
- Azaldu zergatik gertatzen den: guraso gazteen baliabideak, lan-ordutegiak...
- Aldarrikatu familia eta lana bateragarri egiteko politikak...

10.

20.

Idatzi zure kodea:									
--------------------	--	--	--	--	--	--	--	--	--

IDAZLAN LABURRA

Idazlan honek gutxienez 100 hitz izan behar ditu.

Lehiakideak. Jakin berri duzu EITBk programa berri baterako lehiakideak behar dituela. Nonbait, honelako ezaugarriak eskatuko dituzte: hizkuntzak jakitea eta sukaldaritzan aritzeko gaitasuna izatea. Parte hartu nahiko zenuke, eta lagun bat konbentzitu nahi duzu elkarrekin aurkezteko. Horretarako, eskutitza idatziko diozu.

Hizpide hauek garatu behar dituzu:

- Azaldu programaren ezaugarriak.
- Adierazi zergatik hartu nahi duzun parte berarekin.
- Animatu izena ematera.

[illegible]

**ERANTZUN ZUZENAK****HLEA: Ahozkoaren Ulermena (Zer jan kirola egin aurretik)**

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
D	B	C	D	A	C	D	C	B	C

HLEA: Irakurmena (Harreman berdeak)

11	12	13	14	15	16	17	18	19	20
B	C	A	C	B	D	C	D	C	B

21	22	23	24	25	26	27	28	29	30
D	A	B	C	B	A	D	C	A	A

31	32	33	34	35
B	B	A	C	B